



Wagyu haragi bereziko xerrak, saiheskia eta txuletak salgai Larrañagan

Japoniar idiaren haragi berezia da. Wagyu idia itsusia eta ipurdi gabekoa omen da, baina bertatik ateratzen den haragia goxoa eta osasuntsua da. /6

Osasun zentro zaharra bota dute

Urte asko egin ditu herrian, gure artean. Batzuetan nahi baino gehiagotan joan izan gara bertara. Gaixo egon garenean, hara hurbildu gara momentuko egonezina edo gaitzak sendatzeko.

Asteazkenean, Lasarte-Oriako Osasun Zentro zaharra botatzeari ekin zioten eta gaur amaituko dute.

Utzitako partzela horretan, etxebizitzeari egingo zaie lekua aurki. Izan ere, promotorak eraikina bota bezain laster eraikitzen hasteko asmoa du. Honela, Okendo eremuko eraberritzeak aurrera egiten du bai Udalak egiten dituen lanengatik, baita promotorearenengatik ere.

Gaurtik aurrera herriko osasun zentro zaharrak gure oroitzapenetan eta argazkietan baino ez du tokia izango, herriko beste hainbat txokoek bezala. •



Gaur bukatuko dute osasun zentro zaharra botatzeaz. Segituan etxeak eraikitzen hasiko dira.

Emanaldi ederra eskaini zuen Aupa Quartet-ek

Bartzelonatik etorritako Aupa Quartet soka laukoteak kontzertu bikaina eskaini zuen ostiralean Jalgin. Musikarietako bat herrikoa dugu, Asier Suberbiola biolinarekin; beste biolinjolea londrestarra da Alexander Cameron; biolarekin Felipe Escalada madrildarra aritu zen eta biolontxeloarekin Martin Melendez kubatarra.

Bildutakoak gustura utzi arren, eskatu bezala beste bi abestiren bertsoak jo zituzten, Mikel Laboaren Haize Egoa eta Pulp Fiction pelikulako abestia. •



Merezitako txalo zaparradak jaso zituen laukoteak, kontzertu bikaina eskaini baitzuen.

KIROLA /2

Leire Zubizarreta eta Amaia Curiel herriko judokak borrokako Espainiako txapeldunak

UDALA /4

Gaztelekua eta Frontoiko bigarren fasea urte amaitu aurretik bukatu nahi dituzte



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATUREALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



Gimnastek Udaberriko Torneoa dominatzaile gogor lan egingo dute



LOKEko infantil taldeak bost uztaiakin egingo du lan. Arg: LOKE gimnasia.

LOKEko hiru gimnasta taldek, infantil bat eta bi alebinez, martxoaren 7an Udaberriko torneoan parte hartu zuten, Astigarragan.

Infantil mailako neskek 5 uztaiakin egin zuten lana eta 5. postua eskuratu zuten.

Alebinetako taldeek 3 baloi eta bi esku hutsik egin zuten lehia eta Landaberri taldeak 10. postuan bukatu

zuen eta Sasoetak, aldiz, hogeitabatgarrenean.

Entrenatzaileek azaldu zigutenez, maiatzan dute bigarren saioa eta gogor lan egingo dute postu ona lortu eta dominak eskuratzeko.

Atzo gainera, LOKEko gimnasta gazteek haien trebezia erakutsi zuten Andoaingo kiroldegian Kirol Elkarteak antolatutako erakustaldian. •

XXII. Squash txapelketa sozialak gaur du hasiera

Gaur Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak antolatzen duen XXII. Squash txapelketa sozialeko lehenengo partidak, Agustin Erkizia Mikel Zugastiren aurka eta Alberto Udabe eta Patxi Delgadoren arteko norgehiagoka jokatu dira.

Aurten, 17 jokalarik hartuko dute parte. Horien artean, aurkitzen dira ia zko finala jokatu zuen Agustin Erkizia eta Alberto Udabe txapelak.

Partidak astelehenetik ostiralera bitartean jokatu dira, 18:00etatik 20:00etara.

Lehiaketa sistema

Antolatzaileek jakin arazi

dutenez, txapelketak hiru fase izango ditu. Lehenengo fasean, bi taldetan banatuta egongo dira jokalariek. Ligaska-sistemaren bidez jokatu da, buelta bakarrean eta maiatzaren 13an bukatuko da.

Talde bakoitzeko lehenengo hirurak sailkatuko dira txapelketaren fasea jokatzeko. Bigarren fase hori ligaska bidez jokatu dute. Ligaskaren lehenengo biek finala jokatu dute eta hirugarrenak eta laugarrenak kontsolazio finala jokatu dute.

Bestalde, beste parte-hartzaileek kontsolazioa jokatu dute kanporaketa bidez. •

Zubizarreta eta Curiel borrokako Espainiako txapelak



Arg: Ama Guadalupeko taldearen bloga

LOKE eta Ama Guadalupeko taldeko judokak borrokako txapelketan eskuratuak dominak. Eserita, txapelak berriak.

TXINTXARRI

LOKEko judokak zubia izan dute atsedean hartzeko. Izan ere, azken hilabete honetan Estatuko punta batetik bestera ibili dira maila ezberdinetako judo eta borrokako Espainiako txapelketa parte hartzeko eta emaitza lagun izan zuten hauetako batzuetan.

Borrokako txapelak

Martxoaren 13an Murtzian ospatu zen kadete mailako Espainiako borroka txapelketan, esate baterako, emaitzak paregabeak lortu zituzten, bi urrezko domina eta brontzezko bat.

Honela, Amaia Curiel eta Leire Zubizarreta dira Espainiako txapelak berriak, Mario Garridok, berriz, brontzea eskuratu zuen eta Esteban Martinezek bostgarren postua.

Estatuko txapelketak

Bestalde, martxoan 6 eta 7an,

junior mailako judoko Estatuko txapelketa burutu zen, Madril.

Honetan, Leire Zubizarreta judokak parte hartu zuen eta Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, "oso txapelketa txukuna egin zuen."

Finalurrekoan garaipena lortzeko faboritoaren zen judokaren aurka galdu zuen gutxiagatik eta lan ona egin. Hirugarren postua lortzeko borroka ere galdu zuen.

Dominik ez zuen lortu, baina entrenatzaileak aipatu duenez, "sentsazio onak izan ziren."

Era berean, otsailaren 27 eta 28an, Kadete mailako txapelketa nazionala egin zen Fuenlabradan eta honetan LOKEko lau judoka borrokatu ziren.

Esteban Martinezek txapelketa ona burutu zuen. Gorka Aristegik adierazi duenez, "bere jarrera oso ona izan da. Nahiz eta finalurrekoetara iritsi eta brontzea galdu zuen, oso ongi aritu zen borrokari."

Mario Garridok bigarren borroka urrezko puntuagatik galdu zuen. Hala ere, Aristegik dionez, txapelketa ona egin zuen.

Josu Olmosek ere borroka bat irabazi eta bestea galdu zuen eta Abayuba Gutierrezek bi borroka galdu zituen. Entrenatzaileak azaldu duenez, "hauek lehenengo urteko kadeteak dira, beraz, badaukate hobetzeko denbora."

Txapelketa gehiago

Hurrengo asteburuan ere bi txapelketa dituzte Gorka Aristegien neska-mutilek. Batetik, Mario Garrido eta Esteban Martinez Fuengirolara doaz kadete mailako nazioarteko txapelketa.

Bestetik, infantil eta junior mailako Espainiako borroka txapelketa egingo da Gijonen. Leire Zubizarreta, Amaia Curiel, Josu Olmos, Abayuba Gutierrez, Oscar Garrido eta Fermin Baldam, besteak beste, kadete mailan lortutako emaitzak hobetzera doaz. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Aberastasunaren banaketa egokiagoa eskatu du LABek

- Lasarte-Orian otsailean 1.329 langabetu ziren
- Sakoneko aldaketak eskatzen ditu sindikatuak

Ekonomi krisiaren datuak eta konponbidea bilatzeko hartu beharreko neurriak jakinarazi ditu LAB sindikatuak. Hauen iritziz, ekonomia hazi den garaian sortu den aberastasuna esku gutxitan pilatzen joan da, eta aldiz langileen lan baldintzak kaxkarzen. Orain langileak ari dira sufritzen krisiaren ondorio ezberdinak eta aldaketa sakonak eskatu ditu LABek: "aberastasunaren banaketa orekatuagoan oinarrituta egongo den eredu ekonomiko eta soziala behar dugu".



Lasarte-Orian 1.329 langabetu ziren otsailean, iaz baino 235 gehiago.

Enplegu bulegoan jakinarazi dizkiguten datuen arabera, Lasarte-Orian otsailean 1.329 langabetu ziren, iazko otsailean baino 235 langabetu gehiago; 779 gizonezkoak, 650 emakumezkoak eta zerbitzuen sektorean dira langabezia tasa handienak, 803 guztira.

Hego Euskal Herrian, otsailean, 180.913 langabetu ziren; Gipuzkoan 41.463 (%11,79) eta Buruntzaldean 4.086, hauetatik 1.013 Industria Sektorean (%25) eta 2.243 Zerbitzu Sektorean (%60).

Datuetan ikusten denez, langabezia etengabe gora doa, krisialdiak enpleguan eragin handia du eta langileak sufritzen ditu bere ondorioak. Sortzen diren lanpostuak, aldiz, ezeگونkorrak dira, (kontratazioen ehuneko 8,75 da soilik finkoa) eta baldintzak kaxkarrak: behin behinekotasuna, azpikontratazioa, lan istripu tasa altuak, langabetu gehiago... Espediente kopurua izugarri handitu da testuinguru honetan eta Administrazioek ia guztiak onartu ditu. LAB sindikatuko ordezkarien ustez,

"Honek indar harremanak erabat patronalaren alde desorekatu ditu".

LABen iritziz enpleguaren egoera kezagarria da: "arazoa areagotu egin da krisialdiarekin. Kapitalismo eta patriarkatu basatian oinarritzen den egungo eredu ekonomikoarekin langileak beti aterako gara kaltetuak. Helburu bakarra enpresen mozkinak pilatzea da, langileen behar izanak bigarren mailan geratzen dira".

Betiko errezetak

Langabezia gelditu eta lanpostuak defenditzearen aldeko apustu egiten du sindikatuak: "Krisialditik irteko betiko errezetak proposatzen dizkigute, noski langilearen kontura. Gainera, erreforma berrien mehatxa mahai gainean dugu". LABen ustez, presio sozialari esker, eta hauteskundeak laster datozelako, pentsioak murrizteko neurri horiek gelditu edota atzeratu dira baina lan merkatua malgutzearaz hitz egiten ari

direla salatu du eta pentsioak murriztearekin batera, lan-erreforma gogorra ere iragarri dutela krisitik atera ahal izateko: soldatak are gehiago murriztu, kaleratzeak merkatu; eta abar.

Erreforma hauek helburu bakarra daukate LABen iritziz: "enpresen irabaziak langileen kontura berreskuratzea eta abantaila berriak ateratzea, baita krisi garaian ere".

Langileen behar izanak kontuan hartzeko sakoneko aldaketa eskatzen ditu LABek: sortzen den aberastasunaren banaketan dago gakoa eta krisia sortu duen eredu ekonomiko eta soziala aldatzeko lau ardatzetan oinarritutako plan integrala proposatzen du. Batetik, sektore Publiko indartsu baten apustua, ekonomia jendartearen mesedetan jarri, bestetik lana banatuz kalitatezko enplegua sortu, hirugarrena, Babes soziala indartzea eta azkenik, politika ekonomiko eta sozialak bertan eta "langileon parte hartzerekin" erabaki daitezela. •

ELIZBARRUTIA

Arantzazura ibilaldia larunbatean

Donostiako elizbarrutiak larunbat honetan, martxoaren 27an, Arantzazura ibilaldia antolatu du, *Hitzarenak eta hitzekoak* lemapean.

Lasarte-Oriatik joan nahi dutenek, izena ematen behar dute, gaur, bihar eta etzi parroikiko bulego zaharrean, apaiz etxean, arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean. 13 euro balio ditu irteerak. •

KIROLA

Santos Uribe dominik gabe bueltatu zen

Santos Uribe atleta veteranoak Martxako Espainiako Rutako Txapelketan parte hartu zuen martxoaren 7an Ibizako Santa Eularia des Riu herrirrikan.

10 kilometrotako lasterketan 75-80 urte bitartekoen kategorian parte hartzaile bakarra zen, beraz, domina eskuratzeko proba bukatu behar zuen. Tamalez, epaileek lasterketatik kanpo utzi zuten pausoaren mugimendua ez zuelako era egokian egiten.

Hala ere, Santos Uribek ez da kikitzen eta aurten izango diren Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartzeko asmoa azaldu du. •

Buruntz-Azpiren ehiza txikiko txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza txikia zakurrarekin txapelketa soziala antolatu du Buruntza mendiko magalean, larunbatean, martxoaren 27an, 9:00etatik 13:00etara.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, parte-hartzaileak 8:30ean Azkorteke ermita inguruan egon behar dira eta epailerik gabe, izan ere, elkarte bera arduratuko da epailetat. Era berean, txapelketaren ostean, 14:30ean bazkaria antolatu da elkarteak.

Txapelketan parte hartzeko, lizentzia eguneratua izan behar dute ehiztariak eta izena eman behar dute elkarteak, martxoaren 24a baino lehen. Izena ematerakoan 35 euro ordaindu beharko dituzte parte-hartzaileek.



GAITZESPENA

Hainbat herritar bildu ziren Udalean

Ustezko ETako kideek lehengo asteartean, martxoaren 16an, Dammarie-lès-Lys-en eragindako polizia frantsesaren erailketa gaitzesteko hainbat herritar bildu ziren Lasarte-Oriako Udalaren aurrean, horien artean Jesus Zaballos alkatea eta Udal ordezkariak aurkitzen ziren. •

Gurutze Gorriko Astea ekintzez josita

Gurutze Gorriak gure gizartearen besteei laguntzeko jorratzen dituzten ekintzak ezagutzera emateko helburuarekin Gurutze Gorriko Astea antolatu du Lasarte-Orian martxoaren 22a eta 28a bitartean.

Erakusketak, jarduerak ... denetarik prestatu dute beraien lana eta eragina ondo erakusteko eta ezagutarazteko. Andatza Plazan, leku zabal eta sarbide erreza duen lekuan egingo dira jarduerak

guztiak, hau Udalaren kolaborazioari esker.

Ura

Andatza plazan jorratuko diren jardueraz gain, Manuel Lekuona kultur etxean "Moviendonos por el agua" erakusketa ikusgai edukiko dugu martxoaren 22tik 26ra bitartean, biak bane. Bertan uraren erabilpen egokia izango da gai nagusia. Arratsaldeko 17:00etatik 19:30era bitartean ikusteko aukera izango da.

Erakusketa aldakorra

"Milenioko 8 helburuak" erakusketa egongo da ikusgai astelehenean arratsaldeko 17:00etatik 19:30ak arte Andatza plazan. Ordutegi eta leku berdinean, asteazkenean Giza-eskuhartzeko erakusketa egongo da ikusgai. Ostiraletan ere, erakusketa egongo da Andatza, oraingoan ibilgailu eta erreskate materiala erakusteko dute. Larunbatean, ibilgailuetaz gain, larrialdietarako erabiltzen duten materiala

ezagutzeko aukera izango dugu goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte.

Urarekin jolasean

Ura eta bere garrantzia guztion jakinaren gainean dago. Horretaz jabetzeko astearte arratsaldean 17:00etatik 19:30ak bitartean molekula honen inguruan jarduerak antolatu dira.

Erreanimazioa lantzen

Larrialdi momentu batean lagundu ahal izateko erreanimazio kardio pulmonarra nola egiten den erakusteko

tailerra prestatu dute. Andatza plazan arratsaldeko 17:00etatik 19:30era ostegunean.

Larrialdi simulakroa

Jarduera guzti hauei larrialdi simulakro batekin emango zaie amaiera. Igandean, eguerdiko 12:00etan trafikoko istripu bateko erreskate eta bi biktimen ebakuazioa irudikatuko dute.

Aste osoan zehar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00ak arte Andatza plazan Gurutze Gorriak informazio puntua jarriko du.

Gaztelekuaren eta Frontoiko bigarren fasearen proiektuak aurrera doaz

Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatu Funtsera aurkeztutako proiektuen aurkezpena egin zuen ostegunean Jesus Zaballo alkateak.

Urte honetan, Estatuak lagundutako bi proiektu egingo dira Lasarte-Orian, Gazteleku eta Frontoiko eta padeleko bigarren fasea.

Egun bi lanetako baldintza-oriak prestatzen ari direla jakinarazi zuen alkateak, lehen bait lehen lanen esleipena egin eta lan horiekin hasteko.

Izan ere, Estatuak laguntza hauen baldintzetako bat urte bukaerarako lanak bukatuak egotea da eta alkateak aurreratu zuenez, "hauek lehenengo egongo dira bukatuak."

Gaztelekua

Gaztelekuko proiektuak 1.238.276,01 euroko aurrekontua du.

"Jaizkibel plaza eta Adarra kalea erabat itxuraldatuko duen eraikuntza da," adierazi zuen alkateak.

Izan ere, Gaztelekuko eraikuntza modernoa izango da, beirazko bi fatxada izango ditu, Jaizkibel plaza eta Adarra kaleetik sarrera izango du eta led argiak "kolorez aldatzen direnak, egun seinatuak edo ospatzeko, esate baterako IHESAren eguna bada gorria, etab."

Bi solairutako 800 metroko eraikuntza izango da, bata Jaizkibel plazaren mailan eta bestea lurperatua.

Bigarren solairu horrek argi naturala izango duela azpimarratu zuen Jesus Zaballosek, "lehenengo solairuko eremu batzuk gorde dira horretarako. Horietan leihoak edo kainaberako dekoratuak egongo dira."

Era berean, eremuak ongi banatuak ditu, "ekintza bakoitzerako eremu bat finkatu dugu. Era honetara, herritarrek nahi duten lekura joan daitezke besteei ezertan eragozte gabe," azaldu zuen.

Solairuak

Gaztelekuko lehenengo solairuan, pasilo bat egongo da "erakusketak egiteko erabili daitekeena", Gazteen informazio bulegoa, KZgunea, gazteak egoteko eremua "playstation eta sofa eremua", bilera gelak eta gazte elkar-entzetzako txokoa egongo dira.

Azken honetan, "gazte elkarteek bere postontziak izango dituzte eta gelak bilerak egiteko," azaldu du alkateak.

Bigarren solairuan, berriz,



Jesus Zaballo alkateak Gaztelekuaren eraikina nolakoa izango den azaldu zuen.

ekitaldi eta tailerren eremua izango da.

Bilera gelak daude, "horrek mugitu ahalko dira eta altzariak ere bai, erabileraren arabera moldatzeko," azaldu zuen.

Bestetik, solairu horretan, ikastaroetarako psikomotritate gela, aldagelak, herriko taldeentzat entsegu gelak eta auditorioa edo balioanitzeko gela daude.

"Entsegu geletara Parape-

toko taldeak ekarriko ditugu eta bertan instrumentuak uzteko aukera izango dute biltegiei esker," aipatu zuen eta auditorioari dagokionez, "Xpersionek kultur etxeko kafetegian egiten dituen ekitaldiak hona ekarri ahalko ditugu."

Gaztelekuko lanek 6 hilabete iraungo dute eta "hurrengo urtean martxan egotea espero dugu," aurreratu zuen alkateak.

Frontoiko eremua

Bigarren proiektua, Loidi-Barreneko frontoiko eta padeleko pistako bigarren fasea da.

Padel pista eta honetarako azpiegiturak jarri, frontoiko frontisa eta argiteria eta frontoi atzean kokatuko den roko-dromoa daude proiektu honen baitan.

Lanak 654.576,88 euroko aurrekontua du eta hiru hilabeteetan egingo dira. •

Plazaolako landa-parkeko zehaztasunak hurrengo bileran

Ostegunean, martxoaren 25ean, Plazaola landa-parkea guztion artean definitzeko bigarren bilera egingo da, Manuel Lekuona Kultur etxean.

Ekimen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eudelekin elkarlanean, herritarren parte-hartzea bultzatzeko sustatzen duen Kudeatuz programaren baitan kokatzen da.

Bigarren saio honetan, aurreko bileran egindako proposamenak aztertuko dira.

Horretarako eta proiektuak sortzen dituen zalantzak argitzeko, batez ere, gai teknikoek dagozkienak, bertan izango dira Lasarte-Oriako Udaleko zenbait teknikari eta ardura-dun politikoak.

Web gunea

Lehenengo bilerara edo saio ezberdinetara joan ezin dire-

nentzako Udalaren webgunean, www.lasarte-oria.org, programa eta proiektuaren berria ematen den atal bat dago, *Parte hartzen* izenekoa.

Gune honetan, besteak beste, parte hartze prozesuaren berri ematen da, deialdiak eta bileretan egingo den lanen azalpenak edo Plazaolako landa-parkearen planoa ikusi daiteke.

Era berean, herritarrek haien proposamenak egiteko aukera dute web gunean eta, era horretara, prozesuan parte hartzeko.

Lehenengo saioaren irakurketa

Irakurketa positiboa egin du Lasarte-Oriako Udalak, "berrogeita hamar herritar baino gehiago agertu baitziren. Lehen saio horretatik, herritarrek egindako hainbat



Berrogeita hamar herritar baino gehiago bildu ziren Plazaolako landa-parkeko programako lehen bileran.

ekarpen eta iradokizun atara dira," besteak beste, bidegorri bat egitea, atsedene-eremu komundun bat egitea, zuhaitz natura errespetatzea eta horren zabalkundea egitea edo oroimen historikoa sustatzea.

Tamalez, lur jabeek proiektua eta desjabetzea kritikatu eta "kritikatzearen dinamika horrek oztopatu egin zuen herritar askoren ekarpen arintasuna; izan ere, haietako batzuek nahiago izan zuten beren ideiak eta

iradokizunak ez esan, urte askoan lur-sail horien parte handi baten erabilera pribatiboa egin dutenen interesen kaltetan ez joatearren."

Era berean, herritarren mesfidantza agertu zen egon zitekeen proiektu bati buruz ere. •

'Bertso Konposta' ostiralean

Sei bertsolari, Kultur Etxean, gaueko 22:00etan, Erraustegiaren Aurkako Jaialdian

Zubietan eraiki nahi duten Erraustegiaren aurka dauden plataformek antolatutako bertso konposta egingo dute ostiral gauean Lasarte-Oriako Kultur Etxean: 22:00etan hasita, Andoni Otamendi lasarteoriatarrekin batera, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Iñaki Zelaia, Josu Oizartzabal eta Iñaki Gurrutxagak kantatuko dute.

Bertsolari denak dira inguruko herrietakoak, erraustegiaren eragina sentitutakoak, gainera Euskal Herriko azken txapelketan ondo aritu direnak, sarrera doan da eta beraz antolatzaileek Kultur Etxea betetzea espero dute.

Erraustegien aurkako Gipuzkoako plataformen koordinadoreak antolatu du bertso saioa aldarrikapen honi bultzadaxo bat emateko. Atez ateko zabor bilketa Gipuzkoa osora hedatzea da plataforma hauen helburua, eta hori isla-datu dute saiorako prestatu

duten kartelean. Gipuzkoako mapan jada bilketa sistema alternatiboa martxan jarriko duten Usurbil, Hernani eta Oiartzun agertzen dira. Ia hutsik dago beraz momentuz mapa baina Atez Ateko sistema beste herrietara zabaltzen doan heinean beteko da.

Aukera eta denbora

Lasarte Oria Bizirik taldeko antolatzaileek adierazi dutenez, atez atekoaren gaiari oihartzuna ematea da helburua: "Badi-rudi dena eginga dagoela, erraustegia jarriko digutela, baina ez da horrela. Oraindik gauzak egin daitezke eta denbora dago egiteko. Horren adibidea da Usurbilen atez ateko bilketa martxan jarri dutela, hain zuzen, jada urtea bete duen alternatiba. Aukera eta denbora badago, baina erraustegia gero eta gertuago daukagu eta ezin gara lo egon".

Udara bitartean oraindik zehaztu gabeko hainbat eki-



Ostiralean atez ateko bilketa buruzko hitzaldiak dira Hernani, Oiartzun, Urnieta eta Usurbilen. Lasarte-Oria bertso saioa.

men burutzeko asmoa dute eta hasteko, asteburu honetan, Atez ateko hondakin bilketa buruzko Nazioarteko Jardunaldia burutuko da: hitzaldiak antolatu dituzte San Markoseko Mankomunitatearekin batera, Hernani, Usurbil, Oiartzun eta Urnietan atez ateko zabor bilketa buruz eta igandean Usurbilen, Atez Atekoak lehen

urtea betetzen duela eta, festatxo bat. Egitarau honen barruan kokatzen da Lasarte-Oriako bertso saioa ere.

Ostiralean 19:30ean lau herrietan burutuko diren hitzaldietan, Italia eta Kataluniatik etorritako Assumpta Boba, Roberto Cavallo, Rossano Ercolini, Ignasi Puig eta Josep Maria Tost-ek hartuko dute parte.

Lasarte-Oria Bizirik taldeko ordezkariak asteburuan egingo diren ekimenetan parte hartzeko deia luzatzearekin batera zera adierazi digu, oraindik alternatibak abian jartzeko aukera dagoela, "baina denok kontzientziatu behar dugu, azken finean zaborra guztion arazoa da, eta denoi dagokigu zerbait egitea". •



Haurren etorkizuneko arazoak aztergai

Zazpi urte arteko haurren gurasoei eta hezitzaileei zuzenduriko hitzaldi zikloari hasiera eman zitzaion lehengo asteazkenean.

Lasarte-Oriako Udaltaldearen Sanitate, Kontsumoko, Merkataritzako eta Ingurumeneko Saileko lehendakariak, Marisa Zubirik ongi etorria eman eta jarraian, Pilar Seminariok *Nola aurre hartu gure seme-alabekin etorkizunean izan ditzakegun arazoak* hitzaldia eskaini zuen.

Honetan, haurren etapak eta sortzen diren arazoak aztertu ziren, hala nola, komunikazio arazoak. •



Eta hala bazan edo ez bazan... Lehengo asteazkenean, ipuin kontalarien txokoari amaiera eman zitzaion. Manuel Lekuona kultur etxeko haurren liburutegian egiten den ekimena urrian hasi zen eta haurrek hamaika abentura bizitzeko aukera izan dute Pello Añorgak eta Koruko Zurutzak kontatuta eta irakurritako ipuinei esker. Azken saioan, Koruko Zurutzak sorginkeriarekin zer ikusia zuten ipuin desberdinak irakurri zizkien haurrei. •

40 URTE ZUEKIN!

ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Wagyu xerrak, saiheskia eta txuletak salgai Larrañaga Harategian

■ Japoniar idiaren haragi berezia da, osasuntsua eta goxoa ■ Japoniako behia esan nahi Wagyu hitzak

Itxaso MORENO

Txipiroi, onddo, urdaiaz-piko, pikillo piper, erremolatxa eta askotariko saltxitxak eskaintzen dizkigute Larrañaga Harategian. Bere txistorra ere Euskal Herri mailan saritua izan da.

Elaborazioan ezarri dute arreta. Produktu ezberdinak landu eta eskaintzen dizkigute. Elaborazio zorrotza egiten dute eta hori ezaguna da.

Horregatik, Vizmallo, Burgozen dagoen Wagyu abere biltegiko jabea den Patxi Garmendia bergaratarra "guregana etorri zen Wagyu-ko txistorrak eta saltxitxak egiteko proposamenarekin, etorkizunean beste merkatuetan saltzeko" adierazi ziguten harategitik.

Wagyu idiaren berri izan, nola hezi eta zein haragi mota zen aztertu "eta probatu egin genuen, gustatu zitzaigun eta salgai jartzea erabaki genuen".

Lasaitasunean hazita

Egunean ardo litro bat edan. Lasaitasunez bazkatu eta adin

bera dutenen artean larrera ateraten dira. Espazio handi batean Wagyu gutxi bizi dira elkarrekin, helburua zehatza izanik, estresik gabe haztea.

Japonian garagardea eta masajeak jasotzen dituztela dio kondairak, "baina hori ez dakigu egia den ala ez, arraza honek daukan ona genetika da, haragiak barneratuak dituen koipeak" aipatzen dute Larrañagatarrek.

Wagyuak ez dira handiak, "oso itsusiak eta ipurdirik gabekoak dira gainera" diote.

Mantsoak dira, estresarik gabe bizi direnez "zuregana hurbiltzen dira jolastera, mingaina ere ateratzen dizutela". Normalean behiak zu hurbildu bezain laster alde egiten du, "honek kontrakoa egiten du, gizakiek ez diete beldu-rrik ematen".

Haragi honen onurak

Koipe asegabeak ditu Wagyuaren haragiak eta hori hona da gure gorputzarentzat. "Urdaiaz-piko Iberikoaren koipearen antzera jokatzen du. Koipe monoinsaturatuak dira eta zir-



Wagyu idiaren xerrak, saiheskia eta txuletak erosteko aukera dago Kale Nagusiko Larrañaga Harategian.

kulazio eta minbizi gaixotasunak saihesten ditu" dio Larrañagak, "eta guzti hau aztertuta dago" gaineratzen du.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak www.nuestrobuey.com helbidean aurkituko du, Wagyu-ren ezaugarriak eta bere alde

onuragarrien azalpenak.

Eta bestearekin zer?

Ildi honen xerrak, txuleta eta saiheskia bakarrik saldu ohi dira. Gainerako haragiarekin zerbait egin beharra zegoen, hortik etorri zen txistorra egiteko ideia, eta baita Larrañaga

Harategira hurbiltzeko deia.

Musulmanek ez dute txerrikirik jaten, eta abere-biltegikoek badakite. Baina idia aldiz jan dezakete, eta bertan merkatua aurkitzea dute helburua.

Gero eta etorkin gehiago dago, eta beraientzat ere lan egin beharra dago. "Ekarri ziguten haragiarekin saltxitxak eta txistorrak egin genituen, probatu eta gustatu zitzaizen" gaineratzen dute.

Orain, pixkanaka probatzen ari direnei "gustatzea baino ez dugu espero, eta denbora laburrean beste merkatuetan ere gure produktua ikustea."

Garestia ala merkea da?

Badira haragi hau Japonian dastatu eta gero, Larrañaga Harategira hurbildu direnak errepikatzeko asmoz.

Berataratu direnak aldaketa "txiki batekin" egin dute topo, prezioa.

Orain dela gutxi, gasteiztar bat hurbildu zitzaizen Wagyu haragia erosteko asmoarekin eta hemengo prezioa ikusita harririk geratu zen. "Japonian egona zen eta xerra batengatik 30.000 pezeta ordaindu zituen, bertan kiloa 600 eurotara baitago; hemen aldiz, saiheskia 35 eurotan, xerra 38 eurotan eta txuleta 90 eurotan saltzen dugu" azaldu digute harakinek.

Garestia iruditu arren, badirudi merezi duela probatzeak. Asko leku urrunetatik badatoz eta bidai luzeak egiten badituzte Wagyu haragi hau probatu eta erosteko, aitzakiarik ez dago Lasarte-Orian bizi direnentzat. •

Behi itsusia eta ipurdi gabekoa dugu Wagyu idia, baina bertatik ateratzen den haragia goxoa eta osasuntsua da

Gasteiztik, Bilbotik, Irundik edo Donostiatik dator jendea haragi hau dastatzera eta erostera



Koipe infiltrazio handia dauka, koipe asegabeak gainera, eta hori ona da gorputzarentzat. Iruditan saiheski ederra, kiloa 35 euro inguru balio du.

Joxean Beldarrain/ Ostadar K.F.-ko Erregional Goreneko entrenatzailea

‘Urte hasierako helburu guztiak gainditu ditugu’

Denboraldiari ederra egiten ari da Ostadar K.F.-ko Erregional Goren. Iaz bigarren erregionalean jokatu eta igoera lortu zuen. Aurten, denboraldi hasieratik lehenengo postua eskuratu eta badirudi kostatuta egingo zaiela beste taldeei postu horretatik alboratzea. Gogor jardun dira maila honetan eta orain Ohorezko Mailara igotzeko atea gero eta gertuago ditu Joxean Beldarrainen taldeak.

Itxaso MORENO

Joxean Beldarrainek urte hasieran, maila berria jokalariei ezagutarazi eta horretan mantentzea helburu bazituen ere, aurreikuspen guztiak alde batera utzi eta momentu honetan Ohorezko Mailarako txartela lortzea du buruan.

Gorka Belartietaren laguntzarekin, Joxean Beldarrainek lan bikaina egin du eta lan gogorra burutzen ari dira Erregionaleko mutilekin. Ondorioz, herrian zirrara piztu, eta orain gazte ugari dira Michelinera hurbiltzen direnak Ostadarren denboraldi paregabeaz gozatzen.

Talde indartsua aurtengoa, nola ikusten duzu?

Hasieran ezarritako asmoak betetzen ari dira, gogor eta sendo hasi, eta berdintsu amaitu.

Oso talde gaztea da. Normalean, ekipo gazte batekin hasierak kaskarrak izaten dira, gainera kategoria ezezagun batean hasteak...

Beldurra genuen arren, hasieratik uxatu ziren zalantzak eta indartsu hasi ginen,

oso ondo, askotan gehiegi ere iruditzen zait.

Hasieratik lehenengo postuarekin egin ginen eta bost hilabetetan hor mantendu gara.

Zoritxarrez pasa den aste-buruan galdu, eta bigarren gaude orain. Baina taldea oso ondo dago. Guztiak etortzen dira entrenatzera egunero, giro ikaragarria dago eta hori oso garrantzitsua da.

Urteko sorpresa izan zarete, non dago gakoa?

Bi orduko saioak egiten ditugu eta normalean gainerako taldeak ordu eta erdi, ordu eta laurden egiten dute.

Gainera, astean hirutan entrenatzen dugu eta gehienetan gazte guztiak etortzen dira. Ohikoa da maila haue-tan askok huts egitea eta gurean horrela ez denez, fisikoki oso ondo prestatuak gaude.

Gainera gure gazteak ilusioarekin daude. Zortzi partidua geratzen zaizkigu, hor gaude, eta eurek badakite.

Liga amaitu arte postu gorenetan egongo gara eta horrek aurrera jarraitu, lehenengo postuan amaitu eta



Gorka Belartietaren laguntzarekin, Joxean Beldarrain entrenatzaileak herriko taldea Ohorezko mailara eraman dezakete

Ohorezko Mailara igoera eskuratzeko gogoak pizten dizkie.

Denboraldi hasierako fitxaketak nola ikusi dituzu?

Hernanin aritzen ziren hiru jokalaririk fitxatu genituen. Oso ondo dabilta, eta oso gustura. Gure herrian jokalaririk asko dira kanpoan aritzen direnak, baina aukera baldin badago ekarriko ditugu.

Niretzako ere lehenengo urtea da hau, eta nire gogo berdinak somatu dizkiet taldekide guztiei.

Denboraldi hasieran ezarritako helburuak gainditu eta orain, pentsa ezin genezakeen igoera eskuratzekotan gaude.

Norbaitek lekua kendu nahi badigu, gu baino korrika gehiago egin beharko du, eta guk asko egiten dugu, ez ahaztu.

Zortzi partidua liga amaitzeko, zer espero duzue?

Talde guztiak berdin samarrak

gara. Badaude 2-3 talde biz-pahiru jokalaririk oso onak dituztenak, guk ez dugu horrelakorik.

Gure taldeko 15-17 gaztek itxura berdina dute, baina maila onekoak. Beraz, azken finean talde gehienak parekatuak gaude eta geratzen zaizkigun partidua haue-tan lehia nabaria izango da.

Batzuk igotzeko puntuak behar dituztelako gogor saiatuko dira, eta besteak aldiz, kategoria salbatzeko puntuak lortzen saiatuko dira.

Beti Ona eta Roteta dira zuekin lehia zuzenean dauden taldeak, nola ikusten dituzu? Beti Ona talde bezala hobeto ikusten dut eta Roteta indibidualki.

Urtero lehenengo postuetan ibiltzen dira, baina gero ez dira igotzen.

Aurten berdina gertatzea espero dut eta horrela maila igoera Ostadarrentzat izan dadila.

Jubenilek ere denboraldi ederra egin dute, nola ikusten duzu herriko harrobia?

Herri guztietan antzekoa da, beti ere, biztanleriaren arabera zabalagoa izan daiteke.

Niretzako gauzak hasieratik, azpitik ondo egin behar dira harrobi ona ateratzeko eta Ostadar azkeneko urteetan oso ondo dabil.

Gero eta talde gehiago ditu Ostadarrek, baita kategoria ezberdinetan jokatzeko dutenak, eta horrek herriko kirolarientzat onuragarria da, ez dutelako herriko kanpo joan behar. Koadrila herrian dute eta denak elkarrekin jolasteko aukera badute, hobea. Guk hori lortu nahi dugu eta ustez, bide onetik goaz.

Gutxi geratzen da liga amaitzeko, nola daude jokalariek?

Oso indartsu ikusten ditut. Dugun giro politik ere asko laguntzen du. Ilusioz beteta daude, are eta gehiago egin duten lana bere fruituak eman ditzakeela ikusita.

Egungo gazteak gauza asko dituzte egiteko, baina gure gazteek astean hirutan entrenamendutara eta gero partidura etortzeko ahalegina egiten dute. Oso inplikatuak daude. Baina halaber, harrituak herrian sortu den giroarekin, umeak gure partiduak ikustera datoz, zelaiari musika eta banderak egoten dira...

Presioa eta tentsioa ere nabaritzen dute, inoiz ez delako Ohorezko Mailara igotzeko aukera hau eman.

Baina Gorka eta nik zelairi ateratzen direnean laguntzen diegu, presioa albo batera utzi eta dakiten moduan jokatu dezaten. •



Ostadar K.F.-ko Erregional Gorenetik Ohorezko mailara igo daiteken taldea. Denboraldi hasieran ametsa baino ez zena, egia bihurtzeko zorian dago.